2016ko iraila 163. zbk

ARTZAPE

Getariarron Topagunea

GETARIARRAK "PLAIEROEN" ATARIAN

BURUJABETZAREN BIDEAN, BAIETZAREN ALDE LANEAN

Astillero
ANTONIA IRIBAR
Erretegia
Parrillan espezialitatea
Kaia, 1
20808 GETARIA
Tel.: 943 14 04 12

barne diseinua interiorismo
Garbiñe Ibarbia Gamboa
Colegiado Nº 5158/158
- Proiektuak eta erreformak
- Obra-zuzendaria
- Obra-eta jarduera-baimenak
- Gremio koordinaketa
Kristobal Balentziaga, 7 - Getaria - Tel. 685 75 18 21 garbi.ibarbia@hotmail.es

ITXASPE TABERNA
T 943 504 420
Nagusia, 8 - 20808 Getaria

HARRALDE
GETARIA NAGUSIA 17
14 07 04

portu
nagusia 12
20808 getaria
943 140285

MAISOR
Kantauriko esperientzia
OBRADOREA eta DENDA
Tel. +34 943 140 993
www.maisor.com
GETARIA
ANTXOA | ANTXOA OZPINETAN | HEGALUZEA | BERDELA | MENTREZKA | SARDINTXOAK

PINTXO GOXOAK
ITSASKIAK DASTATZEKO EDO ERAMATEKO
GETAKA
GETARIAKO PRODUITS EXPRESSION
KALE NAGUSIA 35. GETARIA - TEL.: 943 02 16 13
WWW.GETARIAEXPERIENCE.COM
WWW.GETAKA.ES

KAIA-KAIAPE JATETXEA
General Arnao, 4 - 20808 GETARIA (Gipuzkoa)
Tfno. 943 14 05 00 • Fax 943 14 01 21 • www.kaia-kaipe.com

Eugenio Uranga
Aseguru Artekaria
Herrerieta, 12
20808 GETARIA
Tel.: 943 140 120
Mobila: 652 775 061
E-posta: euranga@getaia.com

SALANORT
MAESTROS CONSERVEROS
KALE NAGUSIA 22
GETARIA
943 14 06 24
tienda.getaria@salanort.com
Síguenos en FACEBOOK
www.salanort.com

7 Txapakalezka

24-26 *Plaieroak*

4-5 Zuen txokoa
6 Elan Euskadi
7 Txapakalezka
8 Bi hitzetan
9 Historiaren katebegiak
10 Farmaziaren aholkuak
12 Komikia
13 Getariako Hitza eta Txokotik txokora
14 Iritzia
15 Petriletik ikusmiran
16 Salberak Itsaskabrari
17 Toponimia
18 Klik batean
19 Agenda
20-23 Erreportajea: *Euskal Estatua edukiz jantziz*
24-26 Erreportajea: *plaieroak*

2016ko iraila 163. zbk

ARTZAPE

Getariarron Topagunea

[Argitaratzailea] Artzape Euskara Elkartea
[Egoitza] Krixketaneko Iturrigaina 1 - Eskualtxeta Kulturgunea
[Telefonoa] 943 000 548
[Helbide elektronikoa] artzape@topagunea.com
[Erredakzioa] Jon Ander de la Hoz eta Iure Eizagirre.
[Lan taldea] Aritz Iribar, Eider Iribar, Izaro Uzin, Josune Urresti, Nerea Kamio, Lander Ucin eta Unai Lorenzo.
[Kolaboratzaileak] Aitor Irigoien, Amaia Irazabal, Andres Alberdi, Anuska Esnaola, Beñat Gereka, Cesar Blanco, Edurne Irigoien, Elan Euskadi GKE, Ereiten Kultur Zerbitzuak, Gaglo Gaztelekua, Getariako Eskubide Sozialen Karta, Iturzaeta Herri Eskola, Iñaki Requejo, Joxi Erauskin, Kepa Iribar, Markos Aizpuru, Mikel Mugika, Saioa Martinez de Lahidalga, Urritza Aisialdi Taldea, Uxue Alberdi, Uxoa Irigoien, Xabi Insausti eta Zigor Saizar.
[Diseinua] Aritz Paredes
[Publizitatea] artzape@topagunea.com / 943 000 548
[Inprimategia] Gertu (Oñati)
[Tirada] 365 ale
[Lege gordailua] SS-504/01
[ISSN] 1578-469X

ARTZAPE ALDIZKARIAk ez ditu bere gain hartzen aldizkarian argitaratzen diren iritziak.
GETARIAKO UDALAK, FORU ALDUNDIAk eta EUSKO JAURLARITZAk
diruz lagundutako aldizkaria.

Getariako Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Atal hau herritar, talde zein elkarteek zuen ekarpenak egiteko da. Zuen iritzi, gutun, argazki, zorion-agur (bazkide ez direnek 4€), esker on edota agur hitzak argitara ditzakezue. Testuek gehienez 180 hitz izan ditzakete eta ez da irainik onartuko. Ekarpenak jasotzeko azken eguna hilaren 23a izango da, ez da bermatzen egun hori baino beranduago jasotako lanak argitaratzea. Testuak artzape@topagunea.com helbide elektronikora bidali edo Txeruko postontzian utzi daitezke.

Eskerrak sorosleei

Uda honetan, Zumaiako Otezuri egoitzatik bi aldiz joan gara hondartzan bainu egokitua hartzera. Lehen unetik, Gurutze Gorriarekin izan dugun harremana oso ona izan da eta lerro hauek aprobetxatu nahiko genituzke bai egoiliarren izenean zein zentroaren izenean Gurutzeko Gorriko sorosleei eskerrak emateko.

Segi horrela eta ea datorren urtean elkar ikusterik dugun. Mila esker.

Eskerrik asko denoi!

Hurrengo urtean berriz!

Zumaiako Otezuri egoitza

Euskararekin bueltaka

Euskarari buruz egin diren azken ikerketetan zera nabarmentzen da, euskaradunen kopurua igo egin dela azken urte hauetan, aldiz euskararen erabilera ez dela hedatu hein berean eta, gainera, lehen, euskara hutsez bizi zintezkeen herri eta tokietan, orain gaztelera gailentzen ari dela.

Halako konstatazioak zer pentsarazten digu. Azken hamarkadetan egin diren ahaleginak, ikastolak, euskararen aldeko kanpainak, arauak... hutsaren hurrengoak izan ote dira? Euskara betirako kondenatua ote dago bere berezko lurraldean hizkuntza gutxitua izatera, edo kasurik txarrenean desagertzera? Ni nago akatsa ez ote dagoen helburuen formulazioan eta helburu horiek lortzeko aldarrikatzen diren mezuetan. Maiz entzuten dugu, batez ere politikarien ahotan, "Euskal Herrian gizarte elebiduna lortu" behar dugula edo-eta "gizarte elebidunean bizi garela". Behin eta berriro esan beharra dago helburu hori faltsua dela, inon ez baitago eta inoiz ez baita izan gizarte elebidunik, elebitasuna bi hizkuntzen parekotasuntzat hartzen badugu behintzat. Alegia, hizkuntza batek bestea gailentzen du beti, eta horri diglosia deitzen zaio.

Aspaldi da, jada euskal hiztun elebakarrik ez dagoela gurean, euskaldun denak gutxienez elebidunak gara, beraz, pertsonok elebidunak, hirueledunak edo eleanitzak izan gaitezke, bai noski, esan nahi baita hizkuntza batean zein bestean bizitzeko gai garela, eta bizitzako edozein arlotan ezagutzen dugun hizkuntza horietako bat erabiltzeko gaitasuna dugula. Alabaina, gizarte bat bi hizkuntzatan bizi nahi izateak, jakinda bietako bat jende denak dakiela, eta jakin behar duela, ez dirudi oso logikoa alde praktikoa eta ekonomikoa kontuan hartzen baditugu behintzat.

Euskal Erkidego Autonomoan —eta lurralde hori aipatzen dut euskararen egoera bertan baitago osasuntsuen— zabaltzen dizkiguten mezuetan esaten zaigu bi hizkuntzen artean nahi duguna "aukera" dezakegula, biztanleen eskubidea baita hori, eskubide demokratikoa nola ez, eta gainera legeak ahalbidetzen duena. Baina eguneroko bizitzan eskaintzen zaigun bi hizkuntza ofizialen arteko aukera hori, egiaz, zeharo desorekatua da, inork ez baitu, legearen arabera, euskara jakiteko obligaziorik, gaztelera aldiz bai, eta hori erdal elebakarrek jakin, ongitxo dakite.

Gauza da, hizkuntzek bizi irauteko euren lege propioak dituztela, eta maiz ez datozela bat jende legeekin, edo beste era batera esanda, jende legeak ez dira beti egokitzen hizkuntzen beharrei edo baldintzei, eta ez ditut hemen aipatuko horren zergatiak edo arrazoiak. Baldintza horiek bete ezean, hizkuntzak hil egiten dira, edo hobeto esanda akabatu egiten ditugu. Lehenik eta behin, hizkuntza batek bizirik irauteko lurralde bat, eremu geografiko bat behar du, non biztanleei ezinbestekoa zaien mintzaira hori ezagutzea bertan bizi ahal izateko. Bestalde, hizkuntzek bizitza duina izan dezaten nahi badugu, pertsonok bezala, elikatu eta babestu

egin behar ditugu, biziak baitira. Bistan da gurean baldintza horiek ez direla inolaz betetzen euskarari dagokionez eta, gurean diodanean mundu osoan esan nahi dut, beste inon ez baita mintzatzen.

Arazoa, ordea, ez da soilik baldintza horiek gaur egun ez direla betetzen, baizik eta etorkizunerako hartzen ari garen neurriak ez doazela norabide horretan, helburu hori lortzeko asmoz behintzat. Ukaezina da gero eta euskaradun gehiago garela, inoiz izan den kopuru handiena, eta tamalez, hori jakinez lasaitu egiten gara, anestesiatu esango nuke nik. Esadazue, zertarako jakin behar dugun euskara, adibide bat emateagatik, EITBko kazetariek euskaraz galdekatzen gaituztenean, automatikoki gauza bera erdaraz esan behar baldin badugu, gure hizkuntzan esandakoak balio ez balu bezala? Hala bada, euskara Euskal Herrian "hautuzko" mintzaira bilakatu da eta beldur naiz etorkizunean ez ote den "adornuzko" hizkuntza izango, Irlandan gaelikoari gertatu zaion antzera.

Alde batetik inkesta soziolinguistikoak, ikerketa linguistikoak, soziolinguistika eskuliburuak... eta bestetik, euskara erdaldunei "atsegina" izan dakien asmatutako inbentuak ez dirudi nahikoak direnik gure hizkuntzaren erabilpena sustatzeko. Halaber, ez dirudi herri batzuk arnasgune izendatzea, Getaria kasu, akuilu nahikoa denik, aldi berean erdarak euskarari gero eta leku gehiago hartzen dionean bertako euskal hiztunen eguneroko bizitzan.

Ezinbestekoa da, beraz, helburua ondo finkatzea eta jakinaraztea. Helburu hori gure herria euskalduntzea eta euskara biziaraztea baldin bada, euskara jakiteak ezinbestekoa izan beharko du bertan bizitzeko, beste hizkuntzekin eta beste herrialdetan gertatzen den moduan. Hori lortzeko nahitaezkoa da hizkuntza planifikazio zehatz eta serio bat finkatzea (epez epe zer lortu behar den jakitea). Sustapen lan horretan erdaldunek euskara ikasteaz gain, berebiziko garrantzia du euskaradunon utzikeria eta konplexu guztiak gainetik astintzea, eta baliabideak jartzea jendea egoeraz jabetu dadin, lege guztien gainetik eta eraso guztien azpitik, gure esku baitago euskara premiazkoa izatea Euskal Herrian bizitzeko.

Bizi gaitezen euskaraz, euskara bizi dadin.

Edurne Alegria

ZAINTZA EGUNAK

Urrian ez du zaintzarik izango.

FULDAIN FARMAZIA



elan euskadi
ONGD - GGKE

RIO 2016: maratoian zilarrezko domina garestia

Feyisa Lilesa izan da Rio 2016ko gizonezkoen maratoi proban bigarrena helmugara iristen eta, ondorioz, zilarrezko dominaren irabazlea.

Baina horregatik baino gehiago helmugaratzean eskuekin egindako keinuagatik egin da ezaguna. Eskumuturrak gurutzatu zituen bere herria bizitzen ari den jazarpena salatzeko asmoz. Orain, familiak Etiopiara ez bueltatzeko eskatu dio, bertan heriotza edo kartzela zigorra izan dezakeelako zain. Gainera, olinpiar jokoetan aldarrikapen keinuak egitea debekatua dagoenez domina galdu dezake. Baina olinpiar jokoetan gertatutakoak nahiko aipamen izan du eta notiziaren beste aldea azaltzen saiatuko gara, hau da, atzetik dagoen protesta.

Feyisa Lilesa 26 urteko etiopiar kirolaria da. Oromo tribu etiopiarreko kide da. Oromo tribuak Etiopiako biztanleriaren (90 milioi pertsona guztira) %25-30 osatzen du. Etiopia Afrikako adarrean kokatua dago, Somalia, Eritrea, Sudan eta Keniaz inguratuta. Herrialdea bederatzi eskualdetan antolatzen da, etniak oinarri hartutako egituraketa da. Oromo tribuaren eskualdea Oromia da eta bertan kokatuta dago Addis Abeba, Etiopiako hiriburua. Etiopiako langileen %80k nekazaritzan eta abeltzaintzan dihardu. Bizi itxaropena 52,92 urtekoa da Etiopian eta herritarren %42,7 dago alfabetizatua. Emakumeen kasuan %35.

Etiopia herrialde txiroa da, nahiz eta azken hamarkadan industrializazioa indarra hartzen ari den, gehien bat, Addis Abeba hiriburuaren inguruan. Hori dela eta, Gobernua hiriburuaren inguruan dauden lurrak saltzen ari da kanpoko industria handiei. Ondorioz, bertako herritarrak, oromotarrak, landatzeko lurrak galtzen ari dira. Oromotarrak ez dira ixilik geratu eta kalera atera dira protesta egitera. Liskar larriak sortu dira manifestari eta polizien artean, eta 400 bat pertsona hil dira. Ondorioz, Gobernuak bertan behera utzi du lurren berrantolaketa plana. Baina Oromo tribuko kideek diote, hala eta guztiz ere, jazarpenak jasatzen jarraitzen dutela: preso daude kartzeletan, beraien herrietan ez da inbertsiorik egin (eskolak, ospitaleak...), indarkeria erabiliz adierazpen eta bilera eskubidea galarazten dira, eta errefuxiatu ugari dago Kenian kokatuta bere herrialdetik ihesi. Amnesty International bezalako gobernuz kanpoko erakundeek izandako hilketak argitzeko eskatu dute.

Oromo tribuak nazioarteko komunitatearen arreta eskatu zuen ekainean Nairobin (Kenia) egindako jarduera batzuetan, Etiopian gertatzen ari dena jakinarazteko intentzioarekin. Eta nazioarteko notizi bihurtu da, baina ez ekainean, pixka bat beranduago: abuztuan, Feyisa Lilesak maratoia amaitu eta eskuak gurutzatu zituenean. Lilesa olinpiar jokoetako maratoi proba bukatzeko gai izan zen eta ez edonola, bigarren lekuan baizik. Bere herrira bueltatzeko lasterketa, maratoiko 42.915 metro luzeak baina astunagoa izango dela dirudi.

AITOR IRIGOIEN
BEÑAT GEREKA
MIKEL MUGIKA

(T)X ESPEDIENTEA: CSI Getaria

Hainbat kasu konplexu eta arraro konpondu ostean, oraingo honetan zerbait berriaren aurrean aurkitu gara, gu geu izan baikara kasu ilun honen biktimak... Horrela eskertu nahi izan digu norbaitek orain arte ikerkuntzan egindako lan guztia... Baina lasai, lehenago ala beranduago, harrapatuko ditugu ta erantzuleak, CSI Getariak ez baitu inoiz hutsik egiten...

006 kasua: Sabotaia marmitako txapelketan!

Jakina da erronka berriak gustatzen zaizkigula, ta aurtengo Salbatoretan, lehen aldiz marmitako txapelketan parte hartzera animatu ginen (dana ez da ta parranda izango!). Eta irabazteko asmoz, eta aurretik oso ondo prestatuta gainera.

Dena prest genuen: herriko sukaldari aditu askorekin entrenatu ginen (Fishman, Rose Mary, Josep Maria), epaimahaian zegoen Lurdexekin akordioa lotuta genuen, Udalekoei sobre bat pasa genien (ikusita Valentzia aldean, eta gertuago ere bai, holako taktikek bikain funtzionatzen dutela)... Argi zegoen, faborito nagusiak ginen!!!

Norbaitek bazekien hau, ordea. Eta martxan jarri zen ezkutuan, guk irabaztea ekiditeko lanetan. Eta horrela gauzatu zen, LTT talde zestuarrak kantatzen zuen "erasua faxista" gure herrian bertan!

Gogoz ekin genion lanari... baina dena ondo bideratuta genuenean, norbaitek sua manipulatu eta ez zihoala ondo konturatu ginen... Ahaleginak egin arren, azkenean ezin izan genuen garaiz bukatu, eta *fuera de concurso* geratu ginen. Donostiko Zinemaldian hainbat pelikula on etortzen diren moduan...

Kolpe gogorra izan zen, baina hala ere, lanean jarraitu genuen, eta ordubete beranduago amaitu genuen gure marmitakoa! Tentsio uneak bizi izan genituen: beste karpa denak jasota, gu bakarrik geratu ginen frontoian, Brigada Criminalekoek (Joseph Serenade-n gidaritzapean) toldoa ere kendu ziguten une batez etxe kaleratze bat bailitzan, turistek harrituta begiratzen ziguten, herritarrek irribarrez... Eta gu lapikoari eragin ta eragin!

Lehiaketatik kanpo geratu ginen, baina ez zuten lortu guk porrot egitea. Izugarrizko marmitako goxua atera zitzaigun, eta gure mahaian askok hiru aldiz ere errekipatu zuten (genuen). Peter Issues eta Solano karameluen komertzialak kolore txuriegia zuela esan ziguten, burla moduan... Baina zergatik izan behar du iluna marmitakuak? Zein dogma da hau? Marmitako zuriaren aldeko manifestua atera dugu, eta ez gaude bakarrik, Donald Trump-ek ere berak zuria nahiago duela esan baitigu...

Hainbat *sospechoso* fitxatuta ditugu jada:

- *Vox alderdikoak, ikusita azkenaldian euskaldunoi sabotaiak antolatzen gustura dabiltzala... Aguila imperiala bakarrik fala baitzaie...*
- *Ia ia urtero marmitako txapelketa irabazten dutenak, euren garaipena arriskuan ikusita...*
- *Autokarabanetan etortzen diren "guiri" horietako bat, bere su txarra gure onagatik aldatu ziguna...*
- *Aldizkari honetako Salbera eta Itsaskabra. Lehenik piropoa bota guri, ta gero... Aldizkariko sekzion estrella postua kendu nahi badigute, jakin dezatela, hurrengo marmitakoa atunakin egin beharrean, eurekin egingo dugula...*

Itzuliko gara, ordea, errezeta berri eta hobetua prest baitugu... Aurreko astean Ares taldeko arraunlariei eman genien probatzeko, proba pilotu moduan, eta begira zer gertatu zen! Suari dagokionez, hurrengorako garai bateko San Juan sua bezalako haundia eramango dugu... Lasai, segurtasun aldetik, Xegundo jarriko degu ta gero sua itzaltzeko! Garai zaharretan bezala!

udalsarea21

Olio erabiliaren kalitatea hobetzen

Gipuzkoako Ekolio enpresa ostalaritza sektoreari ematen zaizkion landare-olio erabilia biltzeko bidoietan akoplatu daitekeen iragazki bat ekodiseinatzen hasi da, Euskadin biltzen den sukaldeko olio erabiliaren (UCO, ingeleseko siglen arabera) kalitatea hobetzeko helburuarekin.

Ekolio enpresa gaztea da, bokazio sozialekoa, Zarautzen kokatua eta Gipuzkoako Horeca kanaletik (hotelak, jatetxeak eta cateringa) datorren landare-olio erabilia doan jasotzen aritzen da. UCO bio-hondakinen kudeatzaile baimendu gisa, hondakin bihurtutako elikadurako olioa birziklatu eta biodiesela egiteko lehengai bihurtzen dute.

Enpresa honek, bere bi urteko jardunean, jasotako olioan dagoen ezpurutasun organikoen kopurua %30etik gorakoa dela ikusi du. Olio erabiliaren kalitatea hobetzeko, "Iragaziz Irabazi Iragazki Ekodiseinatua" proiektua jarri du martxan, helburu honekin: iragazki efiziente bat ekoiztea, ostalaritza-sektoreari landare-olio erabilia jasotzeko ematen zaizkion bidoietan akoplatzeko modukoa, jasotako UCO olioaren kalitatea hobetzeko, eta bide batez, bere bizi-ziklo osoko ingurumen-inpaktua murrizteko. Iragazkiaren ezaugarriak honakoak dira:

- Iraupen luzekoa, modulagarria eta konpongarria izatea, mota guztietako bidoietara egokitzeko modukoa.
- Erabilerraza eta ergonomikoa.
- Estankoa eta higienikoa.

Proiektuan Bittoriano Gandiaga Fundazioa-Oteitza Lizeo Politeknikoa (prototipoen diseinuaz eta ekoizpenaz arduratuz) eta IK Ingeniaritza (diseinu originalaren eta iragazki ekodiseinatuaren bizi-zikloa aztertuz) parte hartzen ari dira. Ekoliok Urola Kostako Udal Elkartearen, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza izan du.

Informazio gehiago:
Tel. 943 896024
www.urolakosta.org
maizpuru@getaria.org

Udaletxeko artxiboetatik
EREITEN Kultur Zerbitzuak

KANTAURIKO ARRANTZALE ATERPETXEA

Getaria Kantauri kostaldeko itsasontzi askoren babesleku nagusia izan da denborale eta enbatetan. XX. mendearen hasieran ordea, eskaintzen zituen azpiegiturak oso eskas geratzen ziren horrelakoetan jasotzen zuten itsasgizon kopuruarentzat. 1902an portua handitzeko egitasmoa idatzi zuen Jose Maria Aranbarri getariarrak, Elkano Arrantzaleen Kofradiak bultzatuta. Portu berriaren helburua kabotaje-ontzientzat eta arrantza-ontzientzat babesleku egokia izatea zen.

Helburu horrek ordea, Getarian lehorreratzen ziren arrantzale eta itsasgizonak artatzeko gune baten beharra sortzen zuen. Ordurako, euskal itsasgizonak Kantauriko itsasgizonentzat aterpetxe baten beharra aldarrikatzen hasiak ziren. Honi erantzuna eman nahirik, Kantauriko Arrantzale Aterpetxea Getarian eraikitzeko erabakia hartu zen. Itsasgizonen babes beharraz jakitun, Elkano Arrantzaleen Kofradiak proiektua gauzatzeko batzorde bat osatu zuen eta 1918ko uztailaren 16an aurkeztu zuen. Aterpetxea portuan kokatzea eta Kofradiaren egoitza, arrain salmentarako gela eta itsasgizonentzako aterpetxea barne hartzea proposatzen zen bertan.

Eraikina 1919an, Elkanoren mundu biraren IV. mendeurrena ospatzeko ekintzen baitan, inauguratu zuten. Beheko solairuan salmenta gela, arrain biltegia, ikatz eta gatz biltegiak eta itsasgizonentzat atseden gela ezarri ziren. Azken hau beheko solairuaren erdigunean kokatu zen eta itsasgizonak atseden hartzeko bankuak eta arropak lehortu ahal izateko esekigailuak zituen, erdian kokatzen zen tximinia handiaren inguruan antolatuta. Lehenengo pisuan, berriz, aterpetxearen arduradunaren gela, Kofradiako bilera aretoa eta 200 pertsona baino gehiago jasotzeko lekua zuen logela handia egokitu ziren. Bertan egur eta olanezko oheak eta higiene zerbitzuak ezarri ziren. Azkenik, bigarren pisuan, beharrezko guztia zuen erizaindegia prestatu zen: esku-ohea, ebakuntzetarako mahaia, itsasoan zauritu eta gaixotuak artatzeko oheak...

Gaur egun Getariako portuan egoera tamalgarrian ikus daitekeen eraikinak, berebiziko garrantzia izan zuen Kantauri itsasoan arrantzan eta merkataritzan ibili ziren itsasgizonentzat. Getarian babesleku ezin hobea zutela jakiteak, ingurune arrotz batean lan egiteak zituen arriskuak gozatzen lagunduko zien ziurrenik.

Aterpetxearen kanpoko itxura bere inaugurazio egunean. (Argazkia: www.guregipuzkoa.eus, Indalecio Ojagurenen bildumatik).



Itsasgizonek atseden hartzeko bankuak. (Argazkia: www.guregipuzkoa.eus, Indalecio Ojagurenen bildumatik)

Egur eta olanezko oheak lehen solairuko gelan. (Argazkia: www.guregipuzkoa.eus, Indalecio Ojagurenen bildumatik).

FULDAIN FARMAZIA

SIGRE gunea

SIGRE Sendagaia eta Ingurumena arlo farmazeutikoak bultzatutako gaikako hondakin-tratamendua da, herritarrok etxean dituzuen medikamentu-hondarrez libratzeko garatua.

SIGREk helburu bikoitza du:

- Ingurumenari lotuta dagoena, sendagaien eta ontzien hondarrak naturari kalterik ez egiteko tratamendua jasotzen dutela ziurtatzen duena.
- Osasunari lotuta dagoena, sendagaien erabilera arduratsua bultzatu eta, bide batez, okerreko automedikazioak sor ditzakeen ezbeharrak ekiditea.

Zer eraman farmaziako SIGRE gunera?

- Ontziak, bai hutsak baita medikamentu hondarrak dituztenak.
- Sendagai ontziak.
- Xiringak ez diren injektatzeko sistemak (Intsulina-lumak, Clexane®, Altellus®, Forsteo®...).
- Iraungitze-epea bete duten medikamentuak.
- Behar ez dituzun sendagaiak.

Goiko guztien ontzietan ikur hau ikusiko duzu:

Zer EZ eraman SIGRE gunera?

- Orratzak/Xiringak.
- Termometroak.
- Erradiografiak.
- Pilak.
- Gasak.
- Produktu kimikoak.
- Sendagaiak ez direnak (belar batzuk, kosmetika...).

Zer gertatzen da SIGRE gunean jasotako sendagaiekin?

Herritarrek farmaziako SIGRE gunean utzitako ontzi eta sendagai-hondar guztiek, pertsonen osasun eta ingurumena ez kaltetzea ziurtatzen duen prozesua pairatzen dute:

- Sendagai-ontziak: konposizioaren arabera banatzen dira (papera, kartoia, beira, plastikoa, metalak...); enpresa espezializatuetan birziklatzen dira.
- Sendagai arriskutsuak: suntsiketaz, baimendutako hondakin berezien kudeatzaileak arduratzen dira.
- Arriskurik gabeko sendagaiak: balorizazio energetiko bidez suntsitzen dira, hau da, energia elektriko bihurtzen dira edo industria batzuek erregai bezala erabiltzen dituzte.

SIGRE puntuan batutako sendagaiak ezin zaizkie gobernuz kanpoko erakundeei eman herrialde pobretuetara bidaltzeko, derrigorrez suntsitu egin behar dira.

Prozesu osoak Europako legedia bete eta era egokian egiten dela ziurtatzeko, SIGREren jarduera osoa autonomia-erkidegoetako Ingurumen Kontseilaritzen kontrolpean dago.

IRIZABAL,S.A.
ARRAINAK

IPAR KAIA Z/G 20808 GETARIA (GIPUZKOA) TEL.: 943 89 60 10 FAX: 943 14 00 30 C.I.F.: A-20090981

azkuelek

Araba kalea, 41 ZARAUTZ
(Maxi Eroski ondoan)
943-13 04 33 - 619 523 539
azkuelek.com

ETXEKO BERRIKUNTZAK · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK · ARGIZTAPENA · DEKORAZIOA · KONPONKETAK · ANTENAK

Getaria
AUTOESKOLA

Herrerieta
23 behea

Tel: 943 140 301

ORDUTEGI MALGUAK - EUSKARAZ EGITEKO AUKERA

POLITENA

GURE BEREZITASUNAK:

- Astegunetan:
  Eguneko menua
- Jaiegun eta asteburuetan:
  Luxuzko pintxoak, bokatak eta razioak.
- Eramateko eskariak.
- Wi-Fi zerbitzua.

GETARIA

Kale Nagusia, 9
Tel. 943 140 113

aranola
PVC eta Aluminiozko lanak

Tel.: 649 95 15 03 / 649 97 30 41
Fax.: 943 14 02 86

Taberna
Mayflower
Erretegia

katrapona, 4
Tel.: 943 14 06 58 GETARIA

TXOKO
Getaria

txokogetaria.com

Tlf: 943 140 539

EDURNE IRIGOIEN

PLIST & PLAST



Nork bidalita?
Josune Uzin Berasaluze

SAKILLUA

Arg.: Arkamurka Natur Taldea.

Euskera batuan ubarroi esaten zaio eta gazteleraz *cormoran*.
Ohiko hiztegiek ez dute jasotzen hitz hau, bai ordea Eneko Barrutiaren Bizkaiko Arrantzaleen Hiztegiak.
Kirmen Uriberen *Bilbao-New York-Bilbao* liburua irakurtzen ari nintzen. Bertan agertzen zen **sakillua** hitza.
Garai hartan, orain dela zazpi bat urte, gure aitona Boni bizirik zen eta berari galdetu nion, ez **sakillu** hitza ezagutzen zuen baizik berak nola deitzen zion gaztelerazko *cormoran*-ari. Hitz hori arrotza zuen eta beraz itsasoko txori beltz horiei nola deitzen zien galdetu nion. Berak **sakillua** esan zidan. Eta gehitu zuen San Anton mendiaren azpian bazela *Sakillu bajako* harria deiturikoa.Harrez gero hamaika arrantzaleri galdetu diot eta ia inork ez zuen ezagutzen. Gazteagoak ziren gehienak. Zaharragoei galdetzea pentsatu nuen orduan, eta bai, bai Rufok eta bai Xegundo Balentziak ezagutzen zuten. A ze poza nirea!

Getarian eta inguruetan esaten diren hitzen txokoa da hau. Animatu eta bidali *artzape@topagunea.com* - era ezagutzen dituzun hitzak.

ANUSKA ESNAOLA

ISEKA

Norbait edo zerbait barregarri edo irrigarrri uzteko erabiltzen diren mespretxuzko keinu edo hitzak. Iseka egin: norbait edo zerbaiten kontura, gutxietsiz edo mespretxatuz, barre egin.

Nola sentituko zinateke egun batean zure umea iseka egiten diotela esanez etorriko balitzaizu?

Zuk munduan gehien maite duzun pertsonari burla egiten diotela konturatzen zarenean…

Ia ume gehienek jasaten dute noizbait honelako egoera bat. Normalean eskolako ume batek, lagun batek edo batzutan, anai-arrebek eginak izaten dira.

Zer egin dezakezu honelako egoera baten aurrean?

Honen inguruan irakurtzen aritu naiz eta bildu dudan informaziotik, puntu hauek nabarmenduko nituzke:

- Haurraren segurtasuna indartu. Horretarako egindako pauso txiki edo handi guztiak goraipatu.
- Umore kutsua duten txisteak kontatu, elkarrekin barre eginez. Bere buruari barre egiten ikas dezaten.
- Besteek esandakoari garrantzia kendu.
- "Badakit ni haserretu edo mindu nahian zabiltzala baina ez dizut utziko edo ez duzu lortuko". Esaldi honek aurre egiteko indar handia du.

Nire ikuspuntutik ari naiz idazten eta ni ez naiz inongo psikologoa eta ez pedagogoa. Ni, beste asko bezala, ama naiz eta zuek bezala nire egunerokoan hainbat estrategia praktikan jarri behar ditut. Hala ere, uste dut informatu naizenetik gauzak argiago dauzkadala.

Gure umeak pozik bizi daitezen!!!

UXUE ALBERDI

Dezepzionea

Bertso- eta musika-jardunari esker, etxekook sarri samar joaten gara Iparraldera. Lanari esker, diot nik; "beharrik!", esango luke mugaz bestaldeko biztanleak; bestelakoan, kostata zapaltzen baitugu Hegoaldekook Euskal Erdiko ipar partea. Bada *han* sekula izan ez denik; *euskal Frantzia* sekula zapaldu gaberik; *Atharratze* eta, are, Zuberoa bera ere Benitoren asmakizunak direla pentsatuko duenik. Guk, gaitz erdi, dezentetan kantatzen dugu Lapurdin; batzu-batzuetan Nafarroa Beherean eta, inoizka, baita Zuberoan ere. Lekorne, Uztaritz, Ezpeleta eta Heleta tokatu dira pasa den udan. Eta, hala ere, Iparraldeaz dugun irudia erabat da distortsionatua, erromantikoki *primaeijertua* eta bukolikoki ikusezindua.

Aurten, seme txikiaren kariaz —kontziliazioa eta gezur horiek, Zuberoa adina desitxuratuak—, familian joan gara Iparraldera, Saran bazkaldu, eta lo Ainhoan eginda, biharamunean Uztaritzeko plazan kantatzeko. Oi, gure atsekabearen handia, gure dolüaren sakona, frantsesaren omnipresentziaz jabeturikoan! Ikurrinak eta lauburuak nonahi, baina euskaraz elerik ez. Are zorrotzagoa dezepzionea Ainhoara iritsi, Cafe Ezkurran euskaraz galdegin, eta zerbitzariak espainolez —bai, espainol cervantino garbian!— erantzun digunean. Jin gara Uztaritzera bertso-saioa baino bi oren aintzin... eta euskaldunik ez karrikan ageri! Ikastolako haurren entzierro txikian gurasoak frantses egokian mintzo! Eta gu, asaldatuta, jakina, eta triste, bistan da, maluruski minduak, Benitoren ahotsa gero eta bolumen baxuagoan gure baitan. Xalbador, mutu. Odolaren mintzoak min. Off.

Joan da bertso-saioa plaza bete uztariztar euskaldunekin —ziren guztiak zeuden—, eta ohartu gara, normalean, horixe dela ikusten dugun bakarra. Beti goazela Iparraldera antolatzaile euskaldunen eskutik, bertsozale edo musikazale euskaltzaleen abarora, haien abegiaz, arnoaz, gasnaz eta xingarraz urostera. Amaitu da saioa, berandu Uztaritzen bazkaltzeko, baina garaiz, mugaren alde honetan mokadu bat jateko. Oiartzungo jatetxe batean eseri gara bazkaritara, ordutegi andaluziarrean, lasai eta eroso. Ia oharkabean pasa zaizkigu gaztelaniaz egin digun zerbitzaria eta kastillanoz ari diren sei mahaietako —gurea ez, beste denak— bazkaltiarrak. Harrokeria hegozentrista postrearekin batera irentsi eta esan diot lagunari...

— Ezin uka, etxekoago sentitzen gaituk Cadizen Uztaritzen baino.

Joan dira Donostiako jaiak, eta "explore San Sebastian region!", gomendatu diegu turistei, eta Bilboko jaietan, Gernikako lagunei "¿sois extranjeros?", galdetu die Iturribide kaleko Muga tabernako —zein zinikok jarri ote zion izena?— zerbitzariak.

Eta joan da iraila Getarian ere, eta udarekin batera hondartzak, jatetxeak, aparkalekuak eta kaleak bete dituen jende-oldea. Eta galde egin diot neure buruari: zein hizkuntzatan mintzo da turistek aurkitzen duten herria? Eta zerbitzariak? Hotelak? Dendak? Menuak? Zenbat urte falta dira lapurtar batek Getarian euskaraz galdetu eta frantsesez —frantses egokian, prefosta— erantzungo diogun eguna iristeko?

19. ZENBAKIA
2003KO EKAINA

GETARIAN ZER BERRI? Hondartzen kalitatea dudan

MALKORBEN BANDERA URDINIK EZ

Uda hasieran, herriko hondartzak (batez ere Gaztetape) ziren kostan Prestigen galipotak gehien kaltetuenak. Ekainaren 1ean hasi zen uda denboraldia, normalean baino langile bat gehiagorekin. "Iparraldeko eta ipar-ekialdeko haizea bada gehiago iristen da, hego haizearekin berriz urrundu egiten da" zioten. Eusko Jaurlaritzak bainua segurua zela zioen baina Malkorbek ez zuen bandera urdinik jaso.

Artzape

ERREPORTAIA: Estreineko zinegotziak

UDAL BERRIA, IPARRA GABE

Hauteskundeak pasata, 60 lagun inguru bertaratu ziren Udal berriaren osaketa ekitaldira. EAJ-EA koalizioak 8 zinegotzi izango zituen eta Aralar-Independenteak 3. Iparra herri plataformatik aurkeztutako zinegotziak ere bertan izan ziren baina ezin izan zuten kargurik hartu, legez kanpo utzita baitzegoen plataforma. Aralarrek herriak bi zinegotzi eman zizkiela argudiatuta, uko egin zion hirugarren kargua hartzeari. Josu Ezenarro izendatu zuten alkate.

Agurtzane Uzin

BERRIKETAN: Eugenio Irigoien

ITSASOAREN EGOERAZ GOGOETA

Irigoien berri baporeko patroiarekin itsasoaz aritu zen ARTZAPE: "Itsasua monstruo bat da, gizonak botatako dana hartu iten du, zaurituta gelditzen da eta ez da hiltzen (...) Gaur egun egoera eskasa dao, lehengo aldian arrai gutxi dao itsasuan. Harrapatzen dan apurra harrapatzen da erremientak dauzkaulako eta ez antxo asko daolako (...) Nik uste det hemen bazterreko arrai guztia desagertu dala jaboian edo lejian benenuagaitik, elementu kimikoengaitik, eta ez arrantzaliengaitik".

Jon Illarramendi eta Josune Urresti



IÑAKI REQUEJO

Inbasoreak

Zigor, zer moduzko udara izan duk? Ni jendez osaturiko nahas-mahas batean, ezker-eskuin *trintxeran* prest, *homo turisticus* delakoarekin ez zangotrabatzeko... zorigaitzekoa giza espeziearen masifikazioa, dohakabeak gu, *homo turisticus*-en hurrengo biktima bihurtu gaituk eta...

Larunbata duk, berriz ere *homo turisticus*-ek Getaia inbaditu dik, baina arraroa dirudien arren, herriko jendeak bat egiten dik inbasoreekin. Jokaera eta begirada berdina antzematen diat euren artean, gehiegikeria eta zalaparta ez dituk soilik inbasoreen ezaugarriak. Getariarrok, inbasioaren konplizeak gaituk. Esanahi mitiko eta kulturalei dignitatea lapurtzen ari dituk, bizi izan zen kulturaren *souvenir*-ak kontsumitzen, zentzurik gabeko egonaldiak bizitzen. Ez al duk uste, Zigor? Arrasteko arrantza dirudi honek; *homo turisticus* Kale Nagusiko bi jelatu erraldoiei begira doa kanpai hotsarekin batera, Getaiak dian esanahi kulturala biluztu eta hauts bihurtzen diken bitartean... Getariak dignitatea galdu duelakoan nagok, Zigor!

Getarian kexu duk jendea taberna jakin batek Salbadoreetan goizeko 5etan itxi duelako, beste lokal batek kanpotarren loa mozten duelako, umeak plazan oihu gehiegi egiten dutelako... Gure artean atzaparrak ateratzen ditugu eskubide pertsonalak eskubide publikoen aurrean defendatzeko. Mugimenduak antolatzen dira itxuraz errespetu falta larri moduan kontsideratzen diren eskubide pertsonal zapalketa hauek salatzeko, guda-zibila dirudi... zenek defendatuko gaitu turismo beldurgarri honen aurrean?

Herritarron artean guda, eta bitartean *homo turisticus* inbasoreak Getariari dignitatea eta esanahi kulturala lapurtzen ari dira eta inork ez du hitz bat esaten. Ah, barkatu Zigor, *homo turisticus*-ek dirua dakar. Diru madarikatua... XXI. mendeko jainko malapartatua...

ZIGOR SAIZAR

Frankizia kulturala

Iñaki, Katraponako petrilean eserita, oraingo *beraneanteei* begira neok... edo hobe esanda, belarria jarrita, kuxkuxean. Eta harrituta erabat: euskarazko hitzik ez diat entzuten, ez eta españolezkorik ere... Uxoa Irigoienen laguntza beharko nikek espikin inglixtar hauen jarduna ulertzeko.

Ba al dakik, Iñaki, guk nola ikasi genian españolez hitz egiten? Beraneantiakin ligatu nahian (inoiz lortu gabe, noski): Artzapeko petrilean Iruñeako hiru neska ikusi eta Eulaliko pastak jaten ari ginela, itsasora begiratuz "veisss esse *vapor* negro que viene por detrasss del monte San Anton?" galdetu niean udako egun haietako batean, "se llama Patxiku". 5 segunduz, neskak harrituta nire jakituriaz, hain urrutira nola jakin nezakeen baporearen izena... Ni bularra puztu-puztu eginda... albotik aita Izaskungo arrantzalea duen kuadrilakoak ahoa ireki arte: "Zigor, essse es Laurak Bat, el barco mássss pequeño de Getaria, y Patxiku es el mássss grande".

Ez, Iñaki, hauek ez dituk *beraniantiak*, hauek turistak dituk eta beldur nauk turismo globalizatuaren sareetan ez ote garen eroriko, ez ote ditugun ikusiko nortasunik gabeko frankizia multinazionalak: Starbucks-ak capuccinoak saltzen antxoan partez, Hard Rock Cafeak zapore ezezaguneko txupitoak eskaintzen txakolinaren ordez edota gure Kale Nagusia beste edozein hirikoaren antzera, Zara-Stradivarius-Bershka-Mangoren trapuak salduz.

Katraponan dauden herritarrak agurtu (Getaria erdia hemen zegok!) eta baniak katukaletik gora, ze erdiko bi kale horietatik ez zegok pasatzerik, motel!

ANDRES ALBERDI

ALTAMIRA, ALIKANTE, KARAKAS (BERRI)

Altamira.

Alikante.

Karakasberri.

Bistan da ez direla euskal izenak, eta horrexegatik, harrigarri gertatzen da izen horiek edukitzea Getariako hiru baserrik: **Altamira**, **Alikante** (Askizu auzoan), **Karakasberri** (Zumaiako mugan). Baserri izena izateaz gain, itsas mutur bati ere eman dio izena Alikante baserriak: **Alikanteko koska**. Bada **Kartajenako koska** izena duen beste paraje bat ere Getarian.

Ez dira, gainera, atzo goizeko izenak, aspaldikoak baizik. Oikonimo (etxe-izen) zaharrak dira, eta Getaria bezalako herri erabat euskaldun batean horrelako izenak egotea harrigarria gertatzen zaio askori. Nolatan Getarian horrelako izenak?

Besterik ere izango da, noski, baina bi arrazoi nagusi egoten dira normalean gertaera horren sustraian: etxeari "prestigioa" eman nahi izatea edota "kanpotik ekarriak" izatea.

Euskal Herrian garai batean ohikoa izan zen erdal izenak erabiltzea "prestigioa" ematen zutelakoan, "dotoreagoak" zirelakoan. Orduko hizkuntza-egoera diglosikoaren ispilu dira. **Bistalegre**, **Buenabista**, **Buenos Aires** eta gisako izena duten baserri-etxe asko da Euskal Herrian, eta euskal toponimia nagusi den inguruetan ere oso ohitura errotua izan da mendeetan erdarazko izenak ere erabiltzea. Euskarazko baserri-izenak bezala, gainera, tokiaren deskripzioaren isla izaten dira: Bistalegre eta Buenabista izeneko baserri-etxeak ikuspegi ederra duten inguruetan egoten dira. Buenos Aires izenekoa ere (nahiz gero adierazten dugun bigarren arrazoiaren multzokoa ere izan litekeen izen hau) —euskal moldean **Lau Haizetara**, **Lauaxeta** eta antzeko moldean ageri dena— ez da ziurrenera mendizulo batean kokatuta egongo. Arrazoi horrek esplika lezake, beraz, **Altamira** izena (nahiz honentzat ere bigarren arrazoiak balio lezakeen). Arrazoi hori dagoke beste izen hauen atzean ere: **Miramar**, **Paraiso**...

"Kanpotik ekarri izatea" diogunean, hau adierazi nahi da: kanpotar baten jabegoko etxea izatea eta hark jarri izana izena (gogoratu, esaterako, Getarian bertan zenbat etxe eta baserri izan diren "markesarenak"); izan liteke norbait atzerrian ibili izana, eta paraje haien oroigarri jartzea izena etxeari; izan liteke inguruko izenekin inolako antzik ez duen forma erabili nahi izatea (gaur egun bertan ere, haurren izenak direla-eta, esnobismoak ez zaizkigu ezezagun). Urrutiko izenak bertakotzea prozedura arrunta da toponimia-alorrean. Arrazoi horietakoren batek esplika ditzake **Alikante** eta **Karakas** izenak (eta beharbada, baita **Altamira** bera ere). Ezaguna zaigu gertuko **Granada Erreka** ere. Esan bezala, ohitura arrunta (izan) da. Horren agergarri, adibide modura, hona hemen, esaterako, Donostiako hainbat baserriren izenak: Libano, Habana, Paris, Madriltxo, Melilla, Miranda, Sevilla, Toledo, Txipre...

EH Bilduk lortu du boto gehien hauteskundeetan

EH Bildu nagusitu zen Getarian irailaren 25eko Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetan. Koalizioak 702 boto jaso zituen, eta EAJ bigarren izan zen 650 botorekin.

Hona hemen hauteskundeetako emaitzak:

- EH Bildu: 702
- EAJ: 650
- Elkarrekin Podemos: 108
- PSE-EE: 30
- PP: 16
- PACMA: 10
- Ciudadanos: 3
- Ganemos - Sí se puede: 3
- Recortes Cero - GV: 3
- PFYV: 1.

Mintzalagun programan parte hartzeko deia

Ikasturte berrirako Mintzalagun programa abian jarri dute Urola Kostako Udal Elkarteak eta eskualdeko udalek, *Praktikatu eta bizi* lelopean.

Programak euskaraz dakitenak (bidelagunak) eta ikasten ari direnak (bidelariak) elkartzea du helburua, lehenengoek bertako hizkera ezagutu eta praktikatzeko eta bigarrengoek euskaldun berriei erakus diezaieten. Bidelagun eta bidelaria astean behin elkartu ohi dira ordubetez euskaraz aritzeko.

Argibideak jaso eta izena emateko Urola Kostako AEKrekin jarri behar da harremanetan, 625 485 215 telefono zenbakian, urolakosta@aek.org helbidean, mintzalagun.blogspot.com.es webgunean edo Facebookeko Mintzalagunak gara profilean.

Duela zortzi urte gauzatu zen egitasmoa lehen aldiz Urola Kostan eta iaz bi talde sortu ziren Getarian.

Aurtengo kanpainako karteletako bat.

2016ko URRIA

1 Larunbata
Burujabetzaz galdeketa egingo duen taldeari izena jartzeko proposamen bilketa
Ordua: *11:00-14:00*
Lekua: *Plaza*
Proposamenak getariakosustatzaileak@gmail.com-en eta Facebookeko Getaria Gure Esku Dago profilean ere egin daitezke.

Eskulan ikastaroko izen-emate amaiera
Lekua: *Glu-Glu bitxi denda*
Antolatzailea: *Gure Txeru Ikastaroa ostegun arratsaldetan izango da.*
Parte-hartzaile kopuruaren arabera txanda bat edo bi egingo dira (15:00etatik 17:00etara eta 17:00etatik 19:00etara).

Ceská Písen Choir-en kontzertua
Ordua: *20:30*
Lekua: *Salbatore Deunaren parrokia*
Antolatzailea: *Donosti Ereski Elkartea*

2 Igandea
Kilometroak 2016
Lekua: *Bergara*
Antolatzailea: *Aranzadi ikastola*
Aurtengo jaia "Demasa" lemapean egingo da.
Getariatik autobusa aterako da goizean.

4 Asteartea
Euskal Estatua irudikatuz ikerketaren aurkezpena
Lekua: *Alhondiga*
Antolatzailea: *Gaztetxia eta Eskubide Sozialen Karta, "Euskal Estatua edukiz jantziz" egitasmoaren baitan*
Iker Iraola EHUko ikertzaileak aurkeztuko du Ipar Hegoa Fundazioak eta EHUko Parte Hartuz ikerketa taldeak garatutako lana.

Burujabetzaz galdeketa egingo duen taldearen izena aukeratzeko bozketa
Ordua: *17:00-19:00*
Lekua: *Berdura Plaza*

6 Osteguna
Eskulan ikastaroaren hasiera
Ordua: *15:00-17:00 edo 17:00-19:00*
Parte hartzen duen jende kopuruaren arabera talde bat edo bi sortuko dira eta hauen orduegiak zehaztuko dira.
Lekua: *Gure Txeruren lokala*
Antolatzailea: *Gure Txeru*
Aurreko urteetan bezala, Filo irakaslearen laguntza izango dute.

11 Asteartea
Guraso Eskolan izena emateko epearen amaiera
Lekua: *Izen-emate orria eskolan edo udaletxean utzi behar da*
Bi talde mugatu izango dira eta ikastaroa egiteko gutxienez 8ko kopurua beharko da talde bakoitzean.
Seme-alaben adinaren arabera antolatuko dira taldeak: Otik 8ra eta 9tik 12ra.
Ordu eta erdiko bederatzi saio izango dira, astezkenetan; Harremanak elkarteak (psikologia, psikoterapia eta sexologian adituak) emango ditu Iturzaeta Herri Eskolan.

16 Igandea
Nafarroa Oinez 2016
Lekua: *Viana-Lodosa*
Antolatzailea: *Erentzun eta Ibaialde ikastolak*
Aurtengo jaia "Hartu, tenka, tira!" lemapean egingo da.

22 Larunbata
Getariako XIII. Surf eta Bodyboard Txapelketa
Lekua: *Gaztetape*
Antolatzailea: *Getariako Gaztetape Surf Elkartea*

Eresoinka 1937-1939 erakusketaren amaiera
Lekua: *Okendo kultur etxea (Donostia)*
Antolatzailea: *Donostia 2016, Europako Kultur Hiriburua Erakusketak Eresoinka Enbaxada Kultura gogora ekartzea du helburu. Eresoinkako kide izan zen Pepita Embil getariarra.*

26 Asteazkena
Guraso Eskolaren lehen saioa
Ordua: *14:30-19:30*
Lekua: *Iturzaeta Herri Eskola*
Lehen saio honetan finkatuko dira noiz izango diren ikasturteko bederatzi saioak.

27 Osteguna
Murrizketa sozialen eta Euskal Herriaren geroaren inguruko jardunaldia
Antolatzailea: *Gaztetxia eta Eskubide Sozialen Karta, "Euskal Estatua edukiz jantziz" egitasmoaren baitan*
ELAko Joseba Villarrealek, LABeko Garbiñe Aranburuk eta Ekai Center ikerkuntza zentroko Adrian Zelaiak hartuko dute parte.

Cristobal Balenciaga Museoa

6 Osteguna
Erakusketa - Ikatza eta belusa. Ortiz Echagüeren eta Balenciagaren begiradak herri jantziari
Noiz: *urriaren 6tik maiatzaren 7ra*
80 obra baino gehiagoz osatutako erakusketak herri-janzkera du ardatz, eta ezagutarazten du zer-nolako ikuspegi erromantikoa zeukaten Cristobal Balenciagak eta Ortiz Echagüek janzkera horren inguruan, eta nola egin zuten haren berrikuspen estetikoa: goi-mailako joskintzako sorkarietan, lehenak, eta Espainia tradizionalari buruzko argazki-erretratuetan, bigarrenak.

23 Igandea
Familientzako tailerrak - Yuki Mino: herri janzkera eta bere adiera etniko-kulturalak
Ordua: *11:00-13:30*
Parte-hartzaileek janztearen espazio berri bat sortuko dute: lerro sinpleetako "baby hut" bat, karratuaren geometrian oinarritua. Yuki Mino estiloko estalki tradizional bat, familia-leinu bakoitzaren ezaugarri izango drien estanpazioekin apaintzeko.
6 eta 12 urte bitarteko umeak dituzten familientzako ikastaroa da. Umeek 5 euro ordaindu beharko dituzte eta helduek, berriz, 7 euro. Plazak mugatuak dira, beraz, beharrezkoa da izena ematea. Informazio gehiago eskuratzeko 943 008 840 telefonora deitu edo didaktika@cristobalbalenciagamuseoa.com helbidera idatz daiteke.

Gure Esku Dagoren Adierazpen Egunarekin bat egindako eragileetako bik, erreferendumean baietzaren aldeko jarrera aktibatzeko proiektua abiatu dute.

Testua
JON ANDER DE LA HOZ

Galdeketa burujabetzaz

EUSKAL ESTATUA EDUKIZ JANTZIZ

Datorren urtean independentziari buruzko galdeketa egitea onartu zuen Getariako Gure Esku Dago-ren herri batzarrak duela zenbait hilabete. Erabakia ekaineko Adierazpen Egunean egin zuten publiko, 34 eragileren babesarekin; eragile haietako bik baietzaren aldeko botoa sustatzeko egitasmoa iragarri dute.

"Udaberrian iritsiko da erabakitze eskubidearen olatua Getariara". Gure Esku Dago plataformako kide Beñat Aristik ARTZAPEren ekaineko alean egindako adierazpenak dira. Orduko hartan, iragan berriak ziren Aramaion, Ispasterren, Goierrin, Debagoienan eta Azpeitian egindako erreferendum ez-lotesleak, eta Getariak hartua zuen hurrengo urtean egiteko konpromisoa, Alhondigan egindako herri batzarrean adostasun zabalaz onartu zenez.

Dinamikako kideak jadanik hasi dira galdeketa prestatzen. Uda guztian zehar bilerak egin dituzte eskualdeko beste herrietako plataformekin, eta datorren hilabeterako agerraldi bat iragarri du Urola Kostako Gure Esku Dagok. Getarian ere, galdeketa prestatuko duen taldea osatzeko jende bila hasi da plataforma.

Bide horretan, kontsulta babesteko Adierazpen Eguna bere egin zuten 34 eragiletako bik, Eskubide Sozialen Kartak eta Gaztetxiak, proiektu paralelo bat abiatu dute kontsultari begira: urritik maiatzera bitartean 14 saio egingo dituzte *Euskal Estatua edukiz jantziz* lemapean. Bi eragileen asmoa argia da: maiatzerako espero den erreferendum ez-loteslean baietzaren aldeko jarrera aktibatzea.

Horretarako beharrezko jo dute herritarrak ahalduntzea, eta mota ezberdinetako ekitaldiak antolatu dituzte: adin tarte bakoitzari egokitutako hitzaldiak, kazetarien mahai inguruak, liburu aurkezpenak eta zenbait ikerketaren datuak plazaratuko dituzte, esaterako. Eskozia eta Kataluniako egoeraren berri emateko, bertako adituak ere ekarriko dituzte.

Gai sozialak, osagai finko

Osatu duten egitarau zabala hilabete luzeetako lanen ondorio da. Udaberrian zenbait gaitan elkarlanean aritu ziren bi eragileak —pentsiodunentzat soldata duinak eskatzen, esaterako—, eta orduan ekindako harremanari Gure Esku Dagok galdeketa iragarri izanak eman dio jarraipena. Ekaina amaieran hasi ziren bi aldeak biltzen; ordutik, sarri egin dituzte bilerak, egitaraua osatu arte. Bien bitartean, Gure Esku Dago eta Udalarekin izan dira harremanetan: aldebakarreko egitasmoa izan arren, bi erakundeak jakinaren gainean mantendu dituzte orain artean.

Biltzen hasi zirenerako, gauza bat zuten argi Gaztetxiak eta Eskubide Sozialen Kartak: gizarte gaiekin duten lotura kontuan harturik, haiengan oinarritu nahi izan dute *Euskal Estatua edukiz jantziz* ekimena. Hala, gai bakarra izan ez arren presentzia nabarmena izango du.

Urriaren 4an egingo dute lehen saioa, Alhondigan. Ipar Hegoa Fundazioak eta EHUko Parte Hartuz Ikerketa taldeak egindako *Euskal Estatua irudikatuz* ikerketa aurkeztuko du Iker Iraola EHUko ikertzaileak. Euskal Herriko zazpi herrialdeetan egindako ikerketa da (http://www.berria.eus/dokumentuak/dokumentua1565.pdf orrialdean ikus daiteke), eta euskal herritarrek balizko Euskal Estatu batekiko izango luketen jarrera irudikatu du. Lau azterketa egin dituzte horretarako. Hasteko, Euskal Estatuari buruz 2.000 laguni egindako inkesta. Gero, Euskal Estatuari buruz hitz egiteko Euskal Herri osoan antolatutako eztabaida taldeetako iritziak bildu dituzte. Horren ostean enpresaburuen iritziak, eta euskalgintzako eragileen jarrerak eta iritziak ere aztertu

Cat Boyd *Scottish Radical Party*-ko kidea.

Getarian burujabetzaren inguruko galdeketa martxan jartzeko osatutako lan-taldeak izena aukeratzeko parte-hartze prozesua ireki du.

Herritarrek urriaren 3a arte egin ahal izango dituzte beraien proposamenak eta hurrengo egunean izenen artean bat aukeratzeko bozketa egingo da.

Proposamenak jasotzeko bide ezberdinak jarri dituzte: plazan egongo dira urriaren 1ean, 11:00etatik 14:00etara; posta elektronikoz bidal daitezke getariakosustatzaileak@gmail.com helbidera edo Getariako Gure Esku Dagoren Facebook profilean idatzi.

Jasotako izenen artean gustukoena aukeratzeko bozketa urriaren 4an, 17:00etatik 19:00etara, izango da Berdura plazan.

dituzte. Ikerketa horren arabera, biztanleen %40,7k Euskal Estatuari baiezkoa emango lioke galdeketa lotesle batean, %35,3k ezezkoa eta %24k ez daki zein jarrera hartuko lukeen, edo abstentziora joko luke.

Urriaren 27an sindikalgintza eta ikerkuntzako hiru kide elkartuko dira murrizketa sozialez eta Euskal Herriaren geroaz aritzeko. Alde batetik, Joseba Villarreal (ELA) eta Garbiñe Aranburu (LAB) sindikalistak izango dira, eta haiekin batera ariko da Ekai Center ikerkuntza zentroko Adrian Zelaia. Azken hau legelaria da, urte luzez aritu da kooperatibagintzan —MCCko idazkari nagusi eta Mondragon Unibertsitateko presidente ohia da—, eta Europar Batasuneko Industria Eraldaketarako Batzordeko kide da.

Azaroaren 16 eta 17an, bi eguneko jardunaldiak egingo dituzte Alhondigan. Sektore publikoaren defentsa egingo dute bi egunetan. Lehenengoan, gazteleraz aurreikusten den hitzaldia eskainiko du Angeles Maestrok *Crisis, deuda y salud pública* izenburupean. Sendagilea da lanbidez Maestro, eta politikagintzan ere aritua da: PCEko kide gisa IUren sorreran parte hartu zuen, besteak beste. Maestrori Helena Francok hartuko dio lekukoa hurrengo egunean. 2011-2015 artean Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza diputatua izana da Franco, eta egun EHUko irakasle lanetan dihardu.

Ia hilabeteko atsedena hartu ostean, abenduaren 19rako gogoeta-merienda bat antolatu dute Gaztetxiak eta Eskubide Sozialen Kartak. *Gure geroak independentzia behar du* lemapean, Gaindegia eta Independentista Sareak orain urte batzuk egindako muralak aurkeztuko dizkiete herritarrei, eta bertaratutakoek ere euren ekarpenak egiteko aukera izango dute.

Haurrak izango dira protagonista handik egun gutxira, hilaren 29an. Gabonetako oporrak aprobetxatuz, Uxue Alberdik *Lur eta Amets, Euskal Herriaren historia* liburua aurkeztuko du. Bertan izango dira, halaber, Alaia Martin eta Beñat Gaztelumendi bertsolariak, kantuz aritzeko.

Dihardutenen esperientzia, irakasgai

Kazetarien mahai inguruarekin estrenatuko da 2017. urtea. Mahaiaren bueltan izango dira —Pleno Aretoan, printzipioz— Martxelo Otamendi *Berria*-ko zuzendaria, Iñaki Soto *Gara*-ko zuzendaria eta Jurdan Arretxe *Noticias de Gipuzkoa*-ko kazetaria; Euskadi Irratiko eta ETBko kolaboratzaile ere bada irundarra. Egungo egoera politiko eta sozialean Euskal Estatuak duen bideragarritasunaz ariko dira hiruak.

Otsailerako bi ekimen deitu dituzte *Euskal Estatua Edukiz Jantziz* ekimenaren antolatzaileek. Hilaren 9an Asier Blas politologo eta EHUko irakaslea gerturatuko da Getariara, *Euskal Estatua, kudeaketarako tresna egokia: aniztasuna, demokrazia eta justizia soziala* hitzaldia ematera. Jule Goikoetxeak hartuko dio lekukoa Blasi, otsailaren 22an. *Independentzia helburu* liburuaren egileetako bat da Goikoetxea, eta *Euskal Estatugintza Feminista* aurkeztuko du. EHUko Zientzia Politikoetako irakaslea, Oxfordeko Unibertsitatean irakasle postua hartu du berriki. Zenbait komunikabidetan ere kolaboratzen du: *Berria* eta *Diagonal*-en, esaterako.

Martxoa beste herrialdeetako esperientziak biltzeko baliatuko da osoki. Lehenik Kataluniako nondik norakoak eskainiko dituzte bertatik etorritako irakasle eta legelariek. Hala, martxoaren 9an *Herritarren eskubide eta ongizatearen bidean, Catalunyako Errepublika sortzen* lemapean hizketaldia egingo dute Alhondigara gerturatzen diren herritarrek. Beraiekin solasean arituko direnak, Pompeu Fabra unibertsitateko irakasle Jaume Lopez eta Marc Sanjaume. Azken hau, Universitat Oberta de Catalunyako irakasle izateaz gain, Kataluniako Generalitateko Autogobernuaren Ikerketa Institutuko kide da. Organismo hori Kataluniako Gobernuko Presidentzia departamentua da, eta trantsizio nazionaleko deskonexio prozesua —egitura autonomikoetatik estatu egituretarako jauzia— bideratzea dagokio.

Hilaren 14an, aldiz, Eskozia izango da hizpide Cat Boyd-en eskutik. 2014ko erreferendumean baietzaren aldeko kanpaina egin zuen *Scottish Radical Party*-ko kidea da Boyd, eta Eskoziako *The National* egunkari ezagunean artikulugile aritzen da. Bere herrialdeko egoera xehetzeko hitzordua Alhondigan aurreikusten da, eta bideokonferentziaz izango da hasiera batean, nahiz eta Gaztetxia eta Eskubideen Karta Soziala Boyd Getariara ekartzeko formula bila ari diren.

Apirilean herritarren egunerokotasuneko zalantzak argitzea izango dute asmo: hilaren 4an pentsiodunei zuzendatuko hitzaldia eskainiko du Mikel de la Fuente EHUko irakasle ohiak, eta Gaztetxean emango zaio amaiera ekitaldi sortari, hilaren 6ko Mikel Urdangarinen (Independentista Sarea) *Gazteok Euskal Estatuari Bai* hitzaldiarekin.

Datorren urteko galdeketa prestatzen amaitzeko, kontsulta ez loteslean independentziaren aldeko bozka eskatzen duen atxikimendu filmatua grabatuko dute urtean zehar Gaztetxiak eta Eskubide Sozialen Kartak.

Martxoan beste herrialdeetako esperientziak ezagutaraziko dituzte, Katalunia eta Eskoziakoa, hain zuzen ere.

Emakumeen taldeak oinarria mantendu du eta kide berriekin bete ditu hutsuneak; iazkoen nagusitasuna espero badute ere "sorpresatxoren bat" eman nahiko lukete. Gizonek ere, gauzak ondo eginez gero, aurrean ibili daitezkeela uste dute.

Testua
JON ANDER DE LA HOZ

Plaieroak

"URTE ONA IZATEKO ITXURA DAUKA"

Urtero legez, urriarekin batera hasiko dira Zarauzko hondartzako futbol txapelketak: hilaren lehenean talde guztiekin bilera egingo dute, eta hurrengo egunerako aurreikusten da lehendabiziko jardunaldia. Bigarren urtez jarraian, Getariako bi talde lehiatuko dira.

Goizean kirola egin ostean zereginik ez duena, txakurra lagun hartuta Zarautzerako paseoan barrena bikotekidearen partidua ikustera doana, eta Txanelako egonaldia nahi baino gehiago luzatu zaiona. Lehen begi kolpean hiru adiskideentzat elkargune bat aurkitzeak zaila dirudien arren, urteko zenbait hilabetetan izaten dute topo egiteko parada: Zarauzko hondartzako futbol txapelketan gertatu ohi da.

Azken urteetako zalearen erradiografia hori izanagatik, baina, bestelakorik ere izango zen historian zehar. Ez alferrik, 1940an lehen aldiz antolatutako txapelketak aurten 73. aldia izango baitu, Getariako taldeak ohiko direlarik bertan: Mariñelak, Txoko, Aranola... Egun, beste bi taldek jarraitzen dute bi astean behin auzokoen hondartzan baloiari ostikoka: Indaux eta Balearri-Elkanok.

Zarauzko hondartzako klasiko bat bilakatu da Indaux azken urteetan, debuta egin zuenetik anekdota zakukada utziz. Partida ikustera joan eta jokaldi katramilatsu baten ostean epaileari egunkariarekin jo zionaren istorioa sarri azaleratzen da *plaieroez* hizketan hasi orduko. Baita Meho Kodrorekin gertatutakoa ere. Diotenez, besteren artean Realean eta Bartzelonan aurrelari izandakoa ere sarri oroitzen da getariarrekin: Manu Urbieta taldekide ohiak gonbidatuta etorri zen behin jokatzera, eta hara non partida hasi eta gutxira aldaketa eskatu zuen, getariarren gogortasunaz kexu. Nor eta Kodro, Europako atzelari gogorrenen markajeak pairatutako aurrelaria.

Garai hartako pare bat jokalarik irauten duten arren, oraingo belaunaldiak ez du hainbeste kontakizun zakuan. Ari dira gehitzen, baina taldearen eraberritzeak ez du gehiagorako ematen. Aitor Garmendiak azaldu du hori. Zumaiakon eta Ketan aurrelari ibili ostean, hondartzan lehiatzeari ekin zion duela bi urte. Aurtengoa du hirugarrena: "Oso gustura ari naiz, talde giro ederra daukagu".

Izerdia baino zerbait gehiago

Adin tarte handikoa izateak —zaharrenak 39 urte ditu, gazteenak 20 gutxiago— ere lagun taldea handitzen laguntzen duela aitortu du Garmendiak: "Elkarrekin ondo moldatzen gara, ez dago arazorik". Horren lekuko, futbolean aritzeaz gain egiten dituztenak: "Orduaren arabera izan ohi da, baina normalki, partida ostean *hirugarren denbora* egiten dugu; hamaiketakoa, alegia". Txapelketatik kanpora ere izaten dute zer ospatua, dioenez bazkari eta afariak ere lege ez idatzizkotzat baitituzte.

Antzeko giroa dute Balearri-Elkano Arraindegia taldean ere. Aurtengoa bigarren denboraldia dute Zarautzen, eta pixkanaka ari dira hara moldatzen. Baita partida ostekoetara ere, Garazi Iribarrek zehaztu duenez: "Horretan onak gara. Txikiteo luzeak egiten ditugu partiden ostean...". Indauxekoek bezala, afaritarako joera ere badute: taldekide berriei ongi-etorria egiteko aitzakian, duela bi aste egin zuten azkenekoa.

Helburua: txapelketa irabaztea

Alabaina, partida ostetarako utzi ohi dute festa. Jokatzeko grinak elkartu zituen, eta hori dute lehen egitekoa. Ez dira gaizki moldatzen, gainera: iaz, estraineko urtean, finalera sailkatu zen Balearri-Elkano. Denboraldian zehar oso neurketa gutxi

Emakumeek iazko oinarria mantendu dute.

Gizonen taldea aurreko denboraldiko partida batean.

galduta iritsi ziren finalera, baina galdu egin zuten hura. Ez zen harritzekoa izan, Iribarren arabera: "Kupelakoak gailendu zitzaizkigun. Oso onak ziren, uste dut partida guztiak irabazi zituztela". Aurten ere, Kupelaren nagusitasuna aurreikusten dute, baina ez dute baztertzen eurek sorpresatxoren bat ematea: "Irabaztera joango gara; urte ona izateko itxura du".

Lehen begiratuan, talde ona dute. Lanak izan dituzte taldea osatzeko, baina azkenean hamalau kide bildu dira. Partida batzuetan larri ibili daitezkeen arren, gustura dago Iribar: "Oinarria mantendu dugu, eta kide berri batzuekin bete ditugu hutsuneak". Hala, bizpahiru neska zarauztar getariarrekin ariko dira aurten. Adin tarteari dagokionez, talde gaztea dute, hamazazpi eta 27 urte artekoa, baina 21 urtekoek osatzen dute bizkarrezurra. Beste talde batzuekin alderatuta, gaztetxoa.

Helburu berarekin zelairatuko dira gizonezkoak bi astean behin: "Gauzak ondo egiten baditugu, aurrean ibiltzeko moduan izango gara", zehaztu du Garmendiak. Azaldu du helburu nagusia "futbolean gozatzea" dela, baina iazko esperientziak baikorra izatera bultzatzen dute: "Gogorrak gara, falta asko egiten ditugu... baina taldekide batzuk kalitate oso ona dute". Gogoratu du pasa den urtean final zortzirenetarako sailkatu zirela. "Partida gogorra jokatu ostean", 1-0 galdu eta kaleratuak izan ziren: "Nire ustez, bi taldeek irabaz zezaketen partida hura". Kontua da egun hartako aurkariak gero finalera iritsi zirela, eta iristeaz gain, irabazi egin zutela: "Haiek txapeldun izan ziren, eta gu ez ginen haiek baino gutxiago", zehaztu du.

Egitura ezberdinak

Txapelketaren egiturak kezkatzen ditu biak. Aurtengoa jakin gabe —erreportajea egiterakoan adosteke zegoen—, Garmendiak nahi luke iazkoa errepikatzea: "Hamairu talde ginen, eta guztiok elkarren aurka jokatu genuen, ligaxka batean. Gero, batzuk ligarako sailkatu ziren, eta besteak koparako, azken fasea jokatuz: final zortzirenak, laurdenak...".

Duela bi sasoi, aldiz, beste era batera egin zuten: bi talde egin zituzten ligaxkatan banatuta, eta sailkapenaren arabera gurutzatzen joan ziren. Horrela, baina, zenbait taldek ez zuten elkarren aurka jokatu. Emakumezkoek bai, haiek guztien aurka jokatu zuten, birritan gainera: "Joan-etorri egin genuen, zazpi talde soilik ginelako". Gero, lehendabizikoa zuzenean finalera sailkatu zen, eta Balearri-Elkanok —bigarrenak ligaxkan—, hirugarrena gainditu behar izan zuen finalerako bidean. Iribarrek nahi luke aurten ere berdin izatea: "Hobe bai!".

Saiazgetaria
HOTELA

BILERA GELA DAUKAGU

Roke Deuna 25
20808 **Getaria**
Gipuzkoa

T 943 140 143
F 943 140 345
E info@saiazgetaria.com
W www.saiazgetaria.com

OSTOLAZA TALLERRA
Tailer mekanikoa.
Soldadura eta kaldereria.
Txoritonpe industri gunea, 20.
lonja, portua z/g
20808 Getaria
Tel.: 943 140 110 / 675 707 203
ostolazatallerra@gmail.com

ERABERRI
ERABATEKO BERRIKUNTZAK
680880905
676532067
GETARIA
www.eraberri.com

eskura
Fisioterapia zentroa
JOSUNE UCIN BERASALUCE
697961208

BABEXA
Getariako dendari elkartea

SIZ
Servicios Informáticos Zarautz
Ekipo informatikoen salmenta
Mantenua
Informatika akademia
Webguneen diseinua
Urdaneta, 2 bajo · 20800 Zarautz
tel. 943 894 014 · fax 943 133 410
www.zarautz.com · siz@zarautz.com

GIROA TABERNA
·Plater konbinatuak
·Bokatak
·Pintxo goxoen aukera
Kale Nagusia, 24 - GETARIA - Tel.:943 140 800

ASKIZU
FAMILIA ETA TALDEENTZAT
ESKAINTZA BEREZIAK
943 83 36 41
www.itsasoa.eus | www.albergue-getaria.com
arazi@arazi.eus

PUBLIZITATE TARIFAK

Tamainak	Zenbatekoa
4,3 x 4	12 euro
9 x 4	24 euro
13,6 x 4	36 euro
9 x 8	48 euro
13,6 x 8	72 euro
orri erdia	96 euro

Jarri publizitatea ARTZAPEN!!!

Urte osoan jartzen dutenei %10eko deskontua egingo zaie.

Katrapona 4
Tel. 943 140 409
info@katrapona.com
www.katrapona.com
KATRAPONA

BIDALI ZURE DATUAK:

@ artzape@topagunea.com-era

Txeruko postontzira

IZEN-DEITURAK:

HELBIDEA - HERRIA - P.K:

TELEFONOA:

HELBIDE ELEKTRONIKOA:

KONTU ZENBAKIA:

BANKETXEA:

Urtean 25€ - Getariatik kanpora bidaltzea 30€